

Ezezkoa gailentzeak ez du askotarako balioko epe erdi edo luzera. Hasiera batean unionistentzat eta *status quo*arentzat oxigeno burbuila bat izango da, baina laster hustuko da. Londresek autonomia gehiago emateko egin duen promesa betetzen badu, Galesen eta Ingalaterran sortuko dira pitzadurak. Gainera, nahi ez duten egoera baten aurrean ikustearen pertzepzioak Eskoziako biztanleak haserretu egingo ditu; izan ere, Eskozian apenas sostengurik ez duten alderdiek gobernatuko dituzte Londrestik, nagusiki baztertuak diren austeritate neurriekin, zerbitzu publikoen murrizketarekin eta, batez ere, osasun, hezkuntza eta diru sartze arloan desberdintasunak handituta.

Ezetzarekin «borrokak jarraitzen du». Horretarako subiranotasunaren aldeko aukera desberdinak dituzte. Horietako bat 2016ko hauteskundeetan independentziarako agintaldi bat lortzea da. Independentziaren aldeko alderdien aliantzak gehiengoa lortzen badu, hurrengo egunean «Londresek Eskoziaren Independentzia aldarrikatzen duten ahots subiranistez betetako trena jasoko du».

Erreferenduma oso pauso garrantzitsua izan da, ibilbide zehatzarekin, Eskoziak estatu berri bat osatzeko duen gogoia erakusteko eta, batez ere, gaur egun «Erresuma Batua» bezala ezagutzen den iraungitako errealitate baten desagertzea azkartzeko.

Eskoziako prozesuaren pisua eta funtsa parametro demokratikoetan sostengatu dira; arrazoimen legalaren gainetik arrazoimen



Emakume bat ezezkoaren aldeko mezua bere mugikorrean itsatsita.
Andy BUCHANAN | AFP

demokratikoa indartu eta adostu da. Horrek guztiak normaltasuna eta heldutasun demokratikoa erakutsi du, beste herri batzuen eskariak erantzuteko orduan beste estatu batzuek erakusten ez dutena.

Eskoziari gainera subiranistek eta unionistek argi izan dute etorkizunaren inguruko azken erabakia eskoziarrei dagokiela, eta bi aldeetako inork onartu edo proposatuko luke azken hitza Erresuma Batuak osotasunean hartu behar duela. Horregatik kanpainan zehar galdegin dute honakoa: Zein da gu baino hobea egungo belaunaldien eta etorriko direnen etorkizuna erabakitzeko?

Eskoziak erreferendum «legezko, argi eta erabakiorra» izan du; erabaki eta aldatzeko aukera historikoa.

Independentzia bai, erabatekoa

Koldo Sagasti

Eskoziari eta Katalunian abian jarritako prozesuen harira pilean dago burujabetasunaren eztabaida. Neu ere independentziaren aldekoa naiz, erabateko independentziaren aldekoa. Nire iritzia eman nahiko nuke nire eta nire komunitatearen bizitzan eragina duten aferetan. Gustura adieraziko nuke, aukera banu, ez naizela espainola. Baina beste hamaika kontutan ere izan nahiko nuke eskumena, hala nola, nola antolatu gizartea; orain arteko estatu eredu hegemonikoak izan behar al du eredu bakarra? Eta ekonomia? Ba al dago bizitzarik kapitalismotik harago? Galdetuko al digute gure luraren iraupenean eragin lazgarria duten azpiegitura erraldoi eta proiektu txikitzaileen inguruan?

Horrexegatik ez nuen begi onez ikusi Kataluniako Legebiltzarrak proposatutako galdeketa bikoitza. Planteamendu horren arabera lehenengo galdera batek baldintzatzen egiten du bigarrenaren garapena. Lehena, «Katalunia estatu izatea nahi al duzu?», ezinbestekoa da bigarrenari heltzeko, «Balizko estatu hori independentea izatea nahiko zenuke?». Estatu eredutik kanpo ez al da burujabea izateko aukerarik? Eta estatu izan beharrean Katalanek komuna autonomoen federakundea izan nahiko balute? Ezingo lukete independentzia lortutakoan herritarren artean erabaki zer ereduren arabera antolatu nahi duten gizartea?

Ekimen interesgarri bat iritsi zait Eskozia aldetik: Radical Independence Campaign. Ezkerreko mugimendu horrek burujabetasunaren alde egiten du, baina independentzia ez dute helmugatzat, gizartea eraldatzeko tresnatzat baizik. Independentzia, beraz, ez litzateke utopiaren amaiera, abiapuntua baizik. Gizarte bidezkoago, aurrerakoiago eta feministago bat eraikitzeko tresna. Bestela alferrikakoa da horren ibilbide nekeza orain gauden bezala gelditzeko. •